



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDEEN ADMINISTRAZIOAREN TXOSTENARI BURUZKOA: ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK - 2003**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Administrazioari buruzko txostena mamitu du: Erakunde Autonomo Administratiboak, 2003ko ekitaldiari dagokiona. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez oniritzi dute.

Txostenak ondasun erosketa eta zerbitzuen erosketa, langileen kontratazioa eta aurrekontu exekuzioaren alorrean legea bete izana aztertu du. Erakunde Autonomo Administratiboan kontuei dagokienez, horietan jardueraren alderdi esanguratsuenak islatu diren aztertu da, eskagarriak diren kontularitzako printzipioei jarraiki.

Hona hemen EAEren Erakundeen Administrazioaren atal diren Erakunde Autonomoak, fiskalizazio gai izan direnak:

- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea eta Euskaltegiak Arautzekoa (HABE)
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)
- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia (EHPI)
- Estatistikaren Euskal Erakundea (EUSTAT)
- Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakundea (OSALAN)
- Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE)

Fiskalizazioan azaleratu diren arautegi urratzeak administrazio eta kudeaketa ondorioetarako EAEren administrazioan erakunde hauek barne hartu izanaren ondorio dira; honenbestez, Kontu Orokorraren fiskalizazioan azaleratutakoak (gastuen lurraldekako sailkapena, ondasun zerrendan erroreak, lanpostu zerrendak...) hemen ere errepikatu egiten dira.

Ondasun eta langileriaren kontratazioari dagokion kudeaketan ez da lege-hausterik azaleratu.